

"100 DORTSAL OPARI" PROMOZIOAREN OINARRIAK

1. Promozioren antolatzailea

"100 dortsal opari" promozioren antolatzailea IGUALATORIO MÉDICO QUIRURGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS da, IFK A-95321386, eta Bilboko Maximo Agirre kalea 18 zk. bis da bere helbidea. (aurrerantzean IMQ).

2. Promozioren eremua

18 urtetik gora izan eta Euskadin, Nafarroan, Errioxan, Burgosen eta Kantabrian bizi direnak sartuko dira promoziotan.

"100 dortsal opari" promozioren helburua prebentzioa eta ohitura osasungarriak sustatzea izango da.

Promoziotan parte-hartzetik berariaz kanpo geratuko dira:

- GRUPO IMQ-KO enplegatuak, horien ezkontideak, anai-arrebak eta lehen mailako zuzeneko arbasoak eta ondorengoak;

3. Promoziotan parte hartzeko baldintzak eta mekanika

Promoziotan parte hartu ahal izateko IMQk eskaintzen duen ELITEKO EDO LEHIAKETARAKO KIROL AZTERKETA MEDIKOA EGIN BEHARKO dute interesatuek honako zentzoren batean:

- IMQ kirol-medikuntzaren unitatean Bilbon;
- IMQ kirol-medikuntzaren unitatean Donostian;
- IMQ kirol-medikuntzaren unitatean Gasteizen

Parte-hartzailea IMQren bezero izatearen edo ez izatearen arabera, edo Behobian korrikalari izateraen edo ez izatearen izango da zerbitzu honen kostua:

- ELITEKO KIROL-MEDIKUNTZAREN AZTERKETAREN prezioa:
 - 120 €koa izango da parte-hartzailea IMQren bezeroa bada
 - 150 €koa izango da parte-hartzailea IMQren bezeroa ez bada
- LEHIAKETARAKO KIROL-MEDIKUNTZAKO AZTERKETAK honako prezioa du:
 - 80 €koa parte-hartzailea IMQren bezeroa bada
 - 120 €koa parte-hartzailea IMQren bezeroa ez bada

Proposatutako zerbitzua lortzeko honako datu pertsonalak eman beharko dizkiete interesatuek IMQri:

- Izena eta abizenak
- Sexua
- NAN
- Adina
- Telefonoa
- Helbide osoa
- Emaila
- Elastikoaren neurria
- Dorsalaren kolorea

Sustapenaren alditik kanpo jasotzen diren erregistroak ez dira ontzat emango promozioan parte hartzeko.

4. Iraupena

Promozioa 2019ko apirilaren 3an, 08:00etan hasiko da, eta uztailaren 14an, 12:00etan amaitu.

Aukeratutako kirol-azterketa medikoa eskatzeko, parte-hartzaileak ezinbestean honako webgunea baliatuta eman beharko du izena: https://contenidos.imq.es/eu/imq-reconocimiento-medico/?utm_source=behobia&utm_medium=referral&utm_campaign=banner-behobia 2019ko eapirilaren 3ko 08:00etatik aurrera.

Ezinbestekoa da kirol-azterketa medikoa uztailaren 15ra orduko egitea edo ordaintzea.

5. Saria

- 100 dorsak, parte-hartzaileko bana, 2019 Behobia/Donostia lasterketan 2019ko azaroaren 10ean lasterka egiteko.

6. Irabazleak hautatzea

IMQk 1 dorsak emango dizkio kirol-azterketa medikoa egiten duen pertsona bakoitzari. Dorsala, 2018 Behobia/Donostia lasterketan 2018ko azaroaren 11an lasterka egiteko da. Dorsalak emango ditugu dataren arabera, 100 partaideak bete arte, kirol-azterketa medikoa egiten dutenen artean honako zentzoren batean:

- IMQ kirol-medikuntzaren unitatean Bilbon;
- IMQ kirol-medikuntzaren unitatean Donostian;
- IMQ kirol-medikuntzaren unitatean Gasteizen

7. Irabazleen izenak argitaratzea

Irabazleak nor diren 2019ko irailaren 20an argitaratuko da honako webgunean:

<http://www.imq.es>

Sariak nominatiboak eta besterenezinak izango dira, horrenbestez, irabazleak hori onartzen ez badu edo horri uko egiten badio, galdu egingo du irabazle izatearen eskubidea.

Dortsala Behobia-Donostia lasterketaren antolatzaileak emango du; irabazleak aukeratu duen bilketa-gunean emango dio irabazlea itxarotzerrendan baldin bazegoen; berriz, ez bazegoen, Lasterkariaren Azokan.

IMQ edozein erantzukizunetatik salbuetsita geratuko da sarituek eskainitako datuetan horiek identifikatzea, harremanetan jartzea edo saria ematea eragozten duen akatsen bat egonez gero.

8. Irudi-eskubideak lagatzea:

Parte-hartzaile bakoitzak berariaz baimena ematen dio IMQri bere izena, abizenak eta irudia erabiltzeko, sustapen honekin loturiko jarduera guztietan (bereziki, parte-hartzaile guztiek sustapenaren irabazleak nor izan diren jakiteko helburuz), horiei publizitatea edo zabalkundea ematearren, baina ez dute inolako ordainik edo kontraprestaziorik jasotzeko eskubiderik izango horregatik.

9. Datu pertsonalen tratamendua

Tratamenduaren arduraduna	IGUALATORIO MÉDICO QUIRÚRGICO, S.A. DE SEGUROS Y REASEGUROS, IFK A-95321386 ("IMQ"). IMQrekin aurrez aurre edo postaz jar zaitezke harremanetan Bilboko egoitzan (Bizkaia), k/ Máximo Aguirre 18(bis) , (PK 48011), edo emailaz: imq@imq.es .
Datuak babesteko ordezkaria ("DBO")	IMQko DBOrekin emailaz jar zaitezke harremanetan: dpd@imq.es
Tratamenduaren helburuak	"100 dortsal opari" promozioa kudeatzea. IMQk eta IMQ Taldeko beste entitate batzuek merkaturatutako aseguru-produktu eta zerbitzuei buruz jakinaren gainean izatea. Legezko obligazioak betetzea.
Tratamenduaren oinarri juridikoak	Legezko obligazioak betetzea, "100 dortsal opari" promoziotik sortutako harremana betearaztea, interes legitimoa (eta, beharrezkoa denean, baimena).
Datuen jasotzaileak	Tratamenduaren arduradunak, zerbitzu medikoen emaleak eta, hala badagokio, lege aplikagarriak

	zehazten dituen beste batzuk.
Hirugarrenen datuak erabiltzea	Batzuetan, gerta daiteke hirugarrenek eskuratutako datuak IMQk erabili behar izatea, barne daudela osasun-zerbitzuak emateagatik sortutako datuak, "100 dortsal opari" promozioan parte hartzeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoak direnak.
Zure datuak gordetzeko epea	Promozioak dirauen bitartean eta, behin bukatuta, legeak ezarritako atxikitze epeetan edo IMQrentzat erantzukizunak eska daitezkeen epeetan.
Eskubideak	Zure eskubideak dohainik erabil ditzakezu (erabiltzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, mugatzeko, mugitzeko, aurka egiteko, e.a.): (a) aurrez aurre IMQko bulegoetan; (b) postaz Bilbon (Bizkaia), k/Máximo Aguirre 18 (bis), (PK 48011) (Bezeroarentzako Arreta Sailera bidalita); edo (c) emailez img@img.es (beti erantsi behar da NANren kopia irakurgarria edo nortasuna ofizialki egiaztatzen duen agiria). Era berean, DBOrekin jar zaitezke harremanetan edo erreklamazioa egin dezakezu Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es). Informazio gehiagorako, ikusi gure webgunea: https://www.img.es/sites/IMQCorporativo/default/es_ES/Protección-de-Datos

10. Oinarriak aldatzea

IMQk promozioa baliogabetzeko edo oinarri hauek aldatzeko eskubidea beretzat gordeko du eragiketaren funtzionamendu egokia bermatzerik ez baldin badago, hala arrazoi teknikoengatik, antolamendukoengatik edo ezinbesteko arrazoiengatik. Eskatzen ziren baldintzak betetzen ez dituztela iruditzen zaion edo fede txarrez aritu direla iruditzen zaion parte-hartzaileak kanpoan uzteko eta sariak pareko balioa duten beste batzuegatik aldatzeko eskubidea ere beretzat gordeko du.

11. Lehiaketako oinarrien onarpena

Lehiaketa honetan parte hartzeak esan nahi du parte-hartzaileek Oinarri hauek eta IMQren irizpideak osorik eta erreserbarik gabe onartzen dituztela, Oinarri horiekin loturiko edozein gairen ebazpenari eta interpretazioari dagokionez.

IMQk beretzat gordetzen du edozein parte-hartzaile kanporatzeko eskubidea, baldin eta, promozioa egiten den bitartean, esaldi iraingarriak, hitz itsusiak, desegokiak, laidok, mehatxuak eta, azken batean, hirugarrengoeikiko (pertsone fisikoak izan nahiz juridikoak izan) errespetu eza erakusten duen edo, oro har, moralaren eta ordena publikoaren aurkako den edozein adierazpen egiten badu bere erantzunetan edo esku-hartzeetan.

12. Lege eta jurisdikzio aplikagarria:

Espainiako legeek arautuko dute lehiaketa hau.

Parte-hartzaileak onartu egiten du, legokiokeen beste edozein foruri berariaz uko eginez, lehiaketa honetan parte hartzeak eragindako edozein desakordio Bilboko Epaitegi eta Auzitegien mende jartzea, legezko xedapen batek erabiltzailearen alde beste jurisdikzioren bat ezartzen duen kasuetan izan ezik.